



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko abenduaren 26an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearren, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

441/2013 Dekretua

445/2013 Dekretua

460/2013 Dekretua

470/2013 Dekretua

442/2013 Dekretua

446/2013 Dekretua

468/2013 Dekretua

472/2013 Dekretua

Jakinaren gainean geratuko da Udal Batzarra.

3.- ZINEGOTZI BERRIAREN JABETZA HARTZEA



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

Kontuan izanda 2013ko abenduaren 13an Aitor Agirre Alkorta jaunak alkate eta zinegotzi karguak 2011ko maiatzaren 22an eskuratu zituenak, uzteko idatzia aurkeztu zuela. Halaber, kontuan izanda, XABIER BENGOTXEA GOGORZA, IGNACIO ALTUNA AZURMENDI eta MARIA ARANZAZU BALERDI jaun/andereek ere zinegotzi kargua hartzeari uko egin diotela.

Kontuan izanda korporazioak 2013ko abenduaren 19ko bilkuran kargu-uzte horien berri izan zuela, eta hauteskunde-batzorde zentralari eskatu zitzaiola kargua utzi zutenak ordezkatzeko deitu ziren hautagaien egiaztatutunak egiteko.

Kontuan izanda 2013ko abenduaren 4an, hauteskunde-batzordearen kargu hutsak betetzea dagozkien hautagaien zuzenak, zehazki, JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jaunarentzako hautetsi-egiaztatutunak jaso zirela.

Kontuan izanda 2013ko abenduaren 11an, interesdunari dudarik gabe jakinarazi zitzaiola hauteskunde-batzorde zentralak egindako egiaztatutunak jaso zela, Lizartzako Udaleko zinegotzi karguaren jabetza har zezan.

Kontuan izanda alkatetza hutsa betetzeko hautagaiak izango direla beren zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak; alkate hautatuko dela zinegotzien botoen gehiengo osoa lortzen duena. Zinegotzi bakar batek ere ez balu gehiengo osoa lortuko, udalerrian herritarren boto gehienak jaso dituen zerrendako burua hautatuko da alkatea, eta berdinketa badago, zozketa bidez ebaziko da.

Kontuan izanda idazkariaren 2013ko abenduaren 20ko txostena, eta Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoaren, ekainaren 19koaren, 196. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Udalbatzak, hau erabaki du gehiengo osoz:

ERABAKIA

LEHENA. JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jaunari Udal honetako zinegotzi kargua ematea, Aitor Agirre Alkorta jauna ordezkatzeko, azken horrek kargua borondatez utzi ondoren, eta aurretik kargua zin egin ondoren.

Zinegotzi kargua eskuratu ondoren, bilkuran sartuko da JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA jauna.

4.- TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEKO ORDEZKARIA IZENDATZEA



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Udal Entitateen Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Erregimena onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 38. artikuluan xedatutakoaren arabera, bidezkoa ikusten da, Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea egoki ikusten da.

Guzti horregatik, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege dekretuaren bitartez onartutako UEAF legearen 38., 123tik 127ra eta 134tik 138 bitarteko artikulua xedatutakoaren arabera, Alkatetzak, zera proposatzen dio Udal Batzarrari:

ERABAKIA

LEHENA.- Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea:

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA: JOSE M^a SARASOLA ETXEBERRIA

Izendapen proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

5.- 2013 URTEKO AURREKONTUAREN 4/2013 KREDITU ALDAKETA

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontu hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 foru arauaren 34. artikulua ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuen aho batez, honako hau

ERABAKI DA

1.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko laburpenaren arabera:



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
120.121.01.01	Idazkari-Kontuh. Oinarrizko Soldata	12.659,92	11,62	12.671,54
120.121.02.01	Administrari Laguntzailea. Oinarrizko Soldata	10.246,88	251,16	10.498,04
120.129.01.01	Lanetako Ofiziala. Oinarrizko Soldata	9.981,58	251,16	10.232,74
120.129.02.01	Garbitzailea. Oinarrizko Soldata	4.772,74	18,61	4.791,35
121.121.01.01	Idazkari-Kontuh. Soldata Osagarria	25.468,66	1.605,37	27.074,03
121.121.02.01	Administrari Laguntzailea. Soldata Osagarria	23.477,02	186,85	23.663,87
121.129.01.01	Lanetako Ofiziala. Oinarrizko Soldata	24.720,36	146,31	24.866,67
160.121.01.01	G.S. Idazkari-Kontuhartzzailea	9.187,50	456,72	9.644,22
160.121.02.01	G.S. Administrari Laguntzailea	8.555,52	128,15	8.683,67
160.313.09.01	G.S. Gizarte Langilea	4.324,92	16,79	4.341,71
160.451.03.01	G.S. Liburutegiko Laguntzailea	2.999,76	64,97	3.064,73
211.422.01.01	Eskoletako Mantenimenduak	700,00	273,36	973,36
211.433.01.01	Kaleko Argi Indarraren Mantenimendua	2.500,00	282,07	2.782,07
211.439.05.01	Plaza Soroko Igogailuaren Mantenimendua	3.300,00	18,42	3.318,42
211.452.04.01	Frontoiaren Mantenimendua	500,00	480,08	980,08
220.121.01.01	Bulegorako Materiala	1.000,00	21,18	1.021,18
221.422.02.01	Eskolako Jangelako Argi Indarra	400,00	159,53	559,53
221.451.01.01	Kultur Guneko Argi Indarra	4.000,00	512,09	4.512,09
221.441.01.02	Gipuzkoako Ur Kontsortzioa. Ura	31.500,00	5.344,78	36.884,78
221.449.01.04	Ibilgailuarentzat Gasoile	1.000,00	334,74	1.334,74
222.121.01.01	Udaletxeko Telefonoa	2.500,00	526,71	3.026,71
222.121.03.01	Udaletxeko Igogailuaren Telefonoa	250,00	6,55	256,55
222.121.04.01	Plaza Soroko Igogailuaren Telefonoa	250,00	28,01	278,01
222.129.01.01	Udaletxeko Langilearen Telefonoa	500,00	74,04	574,04
222.411.01.01	Kontsultako Telefonoa	1.000,00	16,76	1.016,76
222.121.01.05	Sare Konmutatuaren Erabilera	11.695,92	128,73	11.824,65
226.121.01.04	Aholkularitza Juridikoa	8.000,00	167,56	8.167,56
226.121.01.99	Bestelako Gastu Orokorrak	4.000,00	128,39	4.128,39
227.121.06.01	Lautalan. Prebentzio Plana	1.300,00	449,66	1.749,66
227.432.01.01	Proiektuak eta Lan Teknikoak	13.648,00	6.302,58	19.950,58
421.711.01.01	Tolosaldeko Landa Garapen Elkartea	3.711,83	2.190,91	5.902,74
421.721.01.01	Tolosaldea Garatzen	6.233,00	1.120,92	7.353,92
430.313.01.01	G.O. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua	8.500,00	1.984,12	10.484,12
430.313.02.01	G.O. Larrialdietarako Laguntza	5.734,88	205,06	5.939,94
GUZTIRA		247.718,49	23.893,96	271.612,45

KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

KAPITULUA	KONTZEPTUA	KREDITUAK		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
420.000.00.99	F.A. Bestelako Transferentziak	13.133,77	18.397,46	31.531,23
870.000.00.01	Diruzaintzako Remanentea	71.238,74	5.496,50	76.735,24
GUZTIRA		84.372,51	23.893,96	108.266,47

2.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

6.- 2014 URTERAKO AURREKONTU OROKORRA – PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA ONARTZEA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 2013 urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituz:

SARRERAK

Kapitulua	Izena	€Guztira/
1	Zuzeneko Zergak	109.625,93
2	Zeharkako Zergak	12.500,00
3	Tasak eta Bestelako Zergak	72.493,94
4	Transferentzi Arruntak	446.780,13
5	Ondare Sarrerak	100,00
7	Kapital Transferentziak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	0,00
SARRERAK GUZTIRA		641.500,00

GASTUAK



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Kapitulua	Izena	€ Guztira
1	Pertsonal Gastuak	219.515,42
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuetan	259.914,06
3	Finantza Gastuak	600,00
4	Transferentzi Arruntak	138.354,68
6	Inbertsioak	0,00
9	Pasibo Finantzarioak	23.115,84
IRTEERAK GUZTIRA		641.500,00



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2014rako LANPOSTUEN ZERRENDA

KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

IZENA	Lanp. Kop.	T.6/89 L. 43. Art.	Egoera	%
IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK Idazkari-Kontuhartzailetzaren Azpimaila IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA Laguntzaileen Azpimaila ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA Azpimaila Teknikoa * Mota: Erdiko Teknikariak GIZARTE LAGUNTZAILEA Administratiboa * Mota: Laguntzailea LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA Zerbitzu Bereziak *Mota: Ofizioetako Pertsonala ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA GARBITZAILEA	1 1 1 1 1	B D D E	H J J	36% 40% 55,18%



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

2014rako BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	Teknikaria	Diplomaduna	C	%36	B	13	Ez	3	91-12-01	Aktib	BB

2014rako LANPOSTUEN ZERRENDA
KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Adm Oro	F.H.N	P Zien. edo Zuzen. Dipl	C	%70	B	23	17.785,88	4	91-02-06	Aktib.	Agrup
ADMINISTRARI LAGUNTZAIL.	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	%100	D	14	18.633,44	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	Teknik	Diplomatua	C	%36,48	B	17		3	91-12-01	Hutsa	Funtz.
LANETAKO OFIZIALA	Adm Ber.	Zerb Ber	Eskola Grad edo LH1	C	%100	D	16	19.141,92	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAIL	Adm Oro	Lagunt	Eskola Grad edo LH1	C	%41,16	D	13	6.202,00	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Adm Ber	Zerb Ber	Eskola Graduatua	C	%54,88	E	8	8.047,48	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

BEHIN-BETIKO LAN PERTSONALARI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S.P	Dedikazioa	Taldea	Maila	Os. Espez.	H.E.	Derr. Data	Egoera	Best.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Adm Ber	TEKN	Diplomaduna	C	%36,48	B	13	Ez	3	91-12-01	AktiB	BB



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2014 urterako Aurrekontu Orokorra eta Aurrekontu Exekuziorako Udal Arauak, 2014ko Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda aho batez onartuak izan dira.

7.- MOZIOAK

KONTRATU PUBLIKOETAN, KLAUSULA SOZIALAK

Azken urteetan, euskal herriak pairatzen duen krisi ekonomikoak agerian utzi du euskal herritarrek pairatzen duten egoera. Hainbat eta hainbat egoera baztertzaille eguneroko bihurtu dira. Azken datuen arabera, Hego Euskal Herrian 219.071 langabetu dago, lan egiteko adinean dagoenaren %16,5a hain zuzen ere. Egoera larri hau aldatzeko ezinbestekoa dugu bertoko instituzioen inplikazioa.

Ba dira hainbat tresna, instituzio publikoen eskuetan, egoera honi buelta emateko erabili daitezkeenak. Modu justuago batean jardunaz aukera berriak ireki daitezkeenak. Horietako bat, Kontratazio Publikoa dugu. Desoreka hauek murrizteko baliagarriak izan daitezke Kontratazio Publikoak. Erakunde publikoak, eta herritarrengandik hurbilen dauden instituzionak izanik Udalak, benetako ahalegin bat egitera behartuta daude. Eremu guztietatik lan eginaz, jendartean dauden desberdintasunak eta desorekak apurtzea lortu dezagun.

Azken urte luzeetan zehar, Kontratazio eta erosketa publikoa egiterako garaian, kriterio ekonomikoak erabili dira soilik oinarri gisa. Eskaintzen ziren zerbitzuen kostua izan delarik erreferentzia bakarra bide hori jorratzerako garaian. Hau aldatu beharra dago.

Kontratu Publikoak arautzen dituen legeriaren barnean, bai Europar Komisioak, zein EAEn indarrean dagoen legeriak eta baita Nafarroako Legeak ere, bestelako kontratazio publiko bat egiteko aukera ematen du.

Adibidez, 2008ko ekainean argitaratutako "Autonomia erkidegoko administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte irizpideak, ingurumenekoak eta beste politika publikoak barne hartzeari buruzko akordioak" aukerak ematen ditu bestelako kontratazioak burutzeko.

Udal instituzioetatik bestelako politika bat aurrera eramatea ezinbestekoa da. Krisialdi ekonomikoari orain arteko eskema askorekin apurtuz soilik egingo diogulako aurre. Kontratu Publikoak eta erosketa publiko justuak egitearen bidea jorratu behar dugu. Udal Langileen lan baldintzak bermatzeaz gain, eremu bakoitzeko lan hitzarmenen errespetua, lan segurtasuna bermatzea, ingurumenaren babesa, hizkuntz



LIZARTZAKO

UDALA

GIPUZKOA

irizpideak errespetatuz euskararen presentzia bermatzea, berdintasun irizpideak, ezgaitasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonen presentzia bermatzea... eremu oso zabala dugu garatzeko.

Erakunde Publikoek, Kontratu eta erosketa publikoaren alorrean urratsak emateko garaia da. Euskal Herriko instituzioek, orohar langile, emakume, ezgaitasunak dituzten pertsona, ingurumen eta hizkuntza eskubideak bermatzeko garaia iritsi da.

Hau guztia kontutan hartuta, LIZARTZako udal taldeak ondoko mozio hau aurkezten du, osoko batzarrean eztabaidatu eta udalak bere egin dezan:

1. Udal honek, hemendik aurrerako kontratu eta erosketa publiko guztietan, indarrean dagoen legediak ematen dituen aukerak baliatuz, "klausula sozialak" txertatu eta aplikatzea onartzen du.
2. Udal honek, aipatutako klausula horien lanketa, garapen eta jarraipenerako konpromisoa hartzen du, beharrezko balitz, helburu hori duen lantalde bat sortuaz edo dagokion batzodera bideratuaz.
3. Udal honek, indarrean dauden kontratuen epea amaitzean, hauen luzapena egin ordez, Klausula Sozialak txeratzeko dituen plegu berriak egingo du.

Kontratu Publikoetan, Klausula Sozialak txertatzeko proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

OSASUNGINTZA PUBLIKOA

Tolosaldean eskaintzen den osasun arreta 2011ko azarotik, okerrera egin du nabarmen, itxarote zerrenden luzapena, herritarren kexu eta erreklamazioen gorakadak horren isla dira. Hau dela eta, XXXX(e)ko Udala oso larrituta dago egoera honek eskualdeko biztanleen osasun arretaren kalitatean izaten ari den eraginaz.

Inviza eta Osasun Sailaren arteko hitzarmenak sekulako gabeziak agertzen ditu bere betetze mailan eta honen urteko balorazio eta jarraipenak ez zaizkigu udalei eskaintzen. Ondorioz, honek ez du gure herritarren artapena behar bezalako izango denik ziurtatzen.

Eskualdeko hainbat alkatek Osasun Sailarekin bilera batzuk izan dituzte, baina ez dute hitzarmenaren eta zerbitzuaren inongo baloraziorik eskaini nahi izan, hau behin eta berriz eskatua izan den arren.



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

Gure herritarrok jasotzen duten zerbitzua onena izateko LIZARTZAKo Udalak garbi du zerbitzuaren kudeaketa erabat publikoa duen eskualdeko osasungintza zerbitzu bat behar duela izan. Egungo egoerak irabazi ekonomikoak ditu ardatz eta ez gure eskualdeko herritarren osasuna.

Egoera honen aurrean, LIZARTZAKo Udalak ondorengo eskatzen du:

1. LIZARTZAKo Udalak Inviza eta Osasun sailaren arteko hitzarmena sinatu aurreko egoerara itzultzea eskatzen du. Espezialitateak ambulorietara bueltatu eta erreferentziazko bi ospitale edukitzea eskualdea: Asuncion eta Donostia ospitalea.
2. LIZARTZAKo Udalak dei egiten die bere herritarrei, otsailaren 1-ean "Gure Osasuna ez da negozioa" lemapean, Tolosan burutuko den manifestazioan parte hartzera.
3. LIZARTZAKo Udalak beste behin ere Osasun sailari Invizaz sinaturiko hitzarmenaren gaineko urteko balorazio ekonomikoa zein osasun arretaren gainekoen berri izatea eskatzen dio.
4. LIZARTZAKo Udaleko Osoko Bilkura honek hartutako erabakia eragile hauei jakinaraziko zaie:
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailburuari
 - Gipuzkoako Osasun Zuzendariari
 - LIZARTZAKo herritarrei

Osasungintza Publikoari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO LEGE EGITASMOA – MOZIO PROPOSAMENA

- 1.- Udal honek Ministro Kontseiluak 2013ko uztailaren 26an onartu zuen Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren edukia errefusatzen du.
- 2.- Udal honek Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoak jasotzen dituen neurriak Foru Lurraldean aplikatzearen aurka dagoela adierazten du.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

- 3.- Udal honek Tokiko erakundetza bere osotasunean defendatu dezala exijitzen dio Foru Aldundiari, eta lege honek Lurraldeko Kontzeju eta Udalen eskumen eta funtzionamenduan inolako ondoriorik izan ez dezan konpromisoa hartu dezala.
- 4.- Udal hau bereziki kezkatuta agertzen da Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea Toki Erakunde txikien gain aplikatua izateko arrisku berezia dagoela, eta horregatik Estatuko administrazioari zein Erkidegoko Administrazioari hemengo udalerrietan ez aplikatzea exijitzen die. Bide beretik, Toki Erakunde txikiak lege honen aplikazioaren ondorioetatik babesteko bere esku dauden bitarteko guztiak erabiltzea eskatzen dio Foru Aldundiari.
- 5.- Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Legea aplikatzeak zerbitzu publikoetan, eta Foru zein Toki Administrazioari lotutako enpleguan, izan ditzakeen ondorioak ezagututa Udal honek zerikusia duten administrazio guztiei zerbitzuen prestazioa zein lan postuak eta lan baldintzak bermatu ditzatela exijitzen dei.
- 6.- Mozio honen berri, bando bidez jakinaraziko zaie herritar guztiei eta komunikabideei. Era berean, Foru Aldundiari, Estatuko Gobernuari eta baita Senatu eta Diputatuen Kongresuari ere eduki hauen berri emango zaie.

Tokiko Administrazioa Arrazionalizatzeko eta Iraunarazteko Lege Egitasmoaren aurrean eta beronek Toki Erakundeetan izango duen eraginari buruzko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

LEHIBERRI ZENTROAREN ALDEKO MOZIOA:

Tolosaldea Garatzeneko administrazio kontseiluak ondorengo mozioa onartzea eskatzen du:

LEHIBERRI, Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Zentroak martxoaren 21ean zabaldu zituen bere atak.

Zentro honek eskualdeko eragile sozioekonomikoen erreferentzia gune izan nahi du: batetik, agente ezberdinen artean burutzen diren arlo guztietako proiektuak laguntzeko gune bat; eta bestetik, egun eskualdez kanpo eskaintzen diren baliabideak (formatiboak, teknologikoak,...) eskualdera erakartzeko balioko duen antena bat.

Gainera, enpresen garapenerako bideratuta dauden ekimenen euskarri izateaz gain, ondorengo hauetarako ere lekua izan beharko du: enpresa eta lanbide eskolen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

komuneko proiektuak, enpresentzako informazioa eta sentsibilizazio ekintzak, eta ekintzailetasuna eta barne-ekintzailetasuna sustatzeko moduko instalakuntzak, internazionalizazioaren sustapena eta hartarako prestakuntza, kudeaketaren teknifikazioa, langabetuak laneratzeko sarbide, eta abar luze bat.

Horrela, LEHIBERRI Tolosaldea Garatzenek sustatutako ekintza eta ekimen guztien euskarri izateaz gain, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak edota SPRIk enpresen eta industriaren garapenaren arloan dituzten eskumenen inguruan sustatutako programen euskarri ere da.

Lehiberri Zentroa, azken finean, Tolosaldean azken hamarkadan alor publikotik sustatu den proiektu estrategikorik garrantzitsuena da. Horren adierazle dira, erakunde publiko desberdinetatik proiektuak jaso dituen babesa eta laguntza.

Horren isla, eskualdeko udal, Gipuzkoako Batzar Nagusi zein Eusko Legebiltzarrak Madrilgo gobernutik hitzartuta zegoen milioi euroko diru laguntza ez etortzean eginiko eskaera eta Tolosaldea Garatzen emaniko babesa. Mozio horretako puntu batek horrela zioelarik hitzez hitz: “..... erakundeak, Tolosaldea Garatzenek azken urteetan berrikuntzaren alde egindako lana goraiatzeko du eta bide horretan sakontzen jarrai dezala eskatzen dio.”

Helburua, enplegua sortzetik haratago, eskualdeko biztanleen bizi kalitatea hobetzen laguntzea da horretarako eskualdeko politika integral eta bateratu bat sustatzen. Eskualdeko eragile guztiak, enpresa, langile, sindikatu, hezkuntza, udal zein bestelako administrazioen arteko lan komuna eta ildo bateratua bideratzeko tresna izan nahi duelarik.

Proiektu honen aurrekontua guztira 2.335.542 eurotako izan da.

Finantzazioari dagokionez hauek izan dira orain arte proiektuaren sustatzaileak:

- **Eskualdeko Udalak** 810.542 € (horietatik 525.000 € erakunde finantzarioekin hitzartutako kreditu bidez).
- **Espainiako Gobernua**. Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak: 1.000.000 €
- **Gipuzkoako Foru Aldundiak**: 525.000 €

Kontuan izan behar da lehiakortasun ekonomikoaren sustapenaren alorrean EAEn erakunde eskumenduna **Eusko Jaurlaritza** dela, eta proiektuaren hasieratik



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

aitortu dela bertatik Euskadiko Zientzia eta Teknologia Plangintzan marraztutako estrategiarekin bat datorrela Lehiberri Proiektua eta Zentroa. Honenbestez, **ezinbestekoa jotzen dugu, gainerako udal, probintzia eta estatu mailako erakunde publiko guztiek egin duten moduan, Eusko Jaurlaritzak ere Lehiberri Proiektua babestea eta bere ibilbidea behar den erritmoan egitea ahalbidetuko duten baliabide ekonomikoak bermatzea.**

Honela bakarrik lortuko da krisialdi ingurumari honetan eskualderako hil ala bizikoa den azpiegitura eta baliabide honek bere funtzioa behar bezala betetzea.

Horregatik, LIZARTZAKo udalak ondorengoa eskatzen du:

- Lehiberri eskualdearen garapenerako tresna dela aitortu eta alderdi politikoen arteko ika mikatik aldentzea.
- Eusko Jaurlaritzari Lehiberri proiektuaz bat egin eta duen finantziazio beharraz ohartuta laguntza ekonomikoa ematea.
- Mozio hau, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Tolosaldea Garatzenera igortzea.

Lehiberri Zentroaren aldeko mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

8.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zortzitan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia